


2005EKO JARDUERAK



0. Egoera orokorra

2005. urtea UDALBIDE Elkarlan Elkartearen finkatze, sendotzearen urtea izan da. Zuzendari berriak, José Luis Mendozak, orain arte jorratutako ildoak indartu egin ditu eta barne antolakuntza hobetu.

UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Egitasmo Nagusia elkartearen web gunearen bidez kaleratu zen eta, ohi den moduan, 2005eko proiektua aurrera eramateko deialdi ireki baten bitartez aukeratu izan ziren elkarte laguntzaileak.

1. Ekimenak

Euskal Herriko hainbat Udal, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzaz garatu ditu ekimen guztiak Udalbidek, Udalek dituzten konpetentzi arloetan burutuz.

UDALBIDE Elkarlan Elkartek ekimenak burutzeko zenbait programa propio jarri ditu martxan. Batez ere, Euskal Kultura –Euskara barne-, kirola eta beste arlo batzuetan.

Ekimenak, funtsean, baina ez denak, Nafarroan eta Iparraldean burutu ditu, izan ere, Euskal Kulturak lurralde hauetan baitu egoerarik ahulena.

a) UDALBIDE HEDABIDEAK Programa (364.165 €)

Nafarroan:

▮ EITB NAFARROAN (199.265 €)

Programa honen helburua Nafarroa osoan EITBren presentzia bermatzea da.

Bi atal ditu:

Alde batetik, Nafarroako lurralde ezberdinetako udalerriek EITB modu egokian ikusteko interesa adierazten diote UDALBIDERi, horren ondorioz UDALBIDEREkin elkarlaneko hitzarmena sinatzen dute. Orain arte eskualde hauetan gauzatu da: Erronkari, Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Leitza. EITBko teknikarien aholkularitzaz udalerriek antenak jartzeko tokiak egokitu dituzte, horren mantenimendua bermatuz.

Bestetik, UDALBIDE Elkarlan Elkartek EITBekin sinatu du Lankidetzta Hitzarmena. Honen bidez, EITBk bere zerbitzu teknikoa ziurtatzen du.

▮ EKIALDE: PIRINIOTAKO ALDIZKARI EUSKALDUNA (6.000 €)

Proiektu honen helburua EKIALDE aldizkaria sortzea izan da. Kebenko eta Ainarak elkartek beste hainbat elkarteekin elkarlanean sustatutako proiektua dugu hau.

Aldizkari dibertigarria eta barrurapen errazekoa da, non euskararen munduan mugitzen diren aktore edota eragileek parte hartzen dute.

Edukiei dagokienez, euskarak, euskalkiek eta euskal kulturak dute lehentasuna. Batera, bestelako gaiak ere jorratzen dira.

EKIALDE aldizkariak honako eskualdeak hartzen ditu: Agoitz, Irunberri, Zangoza, Aezkoa, Erronkari, Zaraitzu eta Zuberoa.

Orain arte argitaratu diren zenbakiak 2.005eko maiatza, iraila eta abendukoak izan dira, hiruak ere UDALBIDE Elkarlan Elkartearen laguntzaz.

▮ **EUSKALERRIA IRRATIA** (30.000 €)

Iruña aldean aritzen den euskal irratia da. Euskalerrria Irratia eta bere egitura indarberritzeko egitasmoa bultzatu du UDALBIDE Elkarlan Elkartek. Euskalerrria Irratiaren finantzabidea suspertzeko, zerbitzua garatzeko eta kalitate teknikoa bermatzeko egitasmo hirukoitza da:

- Arlo komertzialean - publizitatearen kaptazioan - aritzeko pertsona baten prestakuntza prozesuaren finantzazioa.
- Euskalerrria Irratia proiektua etorkizunean bermatu.
- Ekipamendu teknikoa eguneratu eta egokitu.

▮ **NABARRA ALDIZKARIA SAREAN** (4.000 €)

Nabarra Sarean proiektuaren bitartez NABARRA aldizkariak web gunea abian jarri du eta euskarri berri hori aldizkariaren edukien osagarria izanen da. Web gune berriak bi atal ditu: batetik, tokia bisitatuko duen jende guztiari bideratutako atal irekiak eta, bestetik, harpidedunentzat bereziki sortutako zerbitzuak.

▮ **TOPAGUNEA** (15.000 €)

Nafarroako Euskarazko Irratien Sarea (NIES) sortu nahi du TOPAGUNEAk, Nafarroako hizkuntza gabeziei erantzun nahian, herrialde osoa hartzen duen proiektua garatzeari ezinbestekoa baiteritzote. Oraingoan, 2.005ean lehenengo urratsak eman dira. Irratiak bateratu dira eta proiektua garatu ahal izateko baldintzak ezarri dituzte.

NIES-k Nafarroan euskaraz diharduten sei irratiek, hots, Aralar, Beleixe, Esan Erran, Euskalerrria, Karrape eta Xorroxin Irratiek osatuko dute, helburu berarekin: euskara biziberritzea eta informazioa trukitzea. Gertutasunetik abiatuta euskalduntasuna sustatu nahi dute, programazio bateratua eskainiz.

▮ **XORROXIN IRRATIA** (4.000 €)

Eskola Irratia proposatu du XORROXIN Irratiak, helburu ezberdin zenbait sustatu eta lortzearren. Proiektu honen bidez, aho adierazpena landu eta euskararen kalitatea hobetu, irakurketa eta idazketa garatu, aho erregistroa indartu eta solaseko tonu egokia lantzen dira. Batera, ekimen honek, irratia komunikabide bezala ezagutzeko aukera eman du.

Xorroxin Irratiak azpimarratu bezala, egitasmo honek eskoletara zabaltzen du euskaraz mintzatu, idatzi eta komunikatzeko prozesua.

Iparaldean:

▮ **EUSKAL IRRATIAK (16.000 €)**

Euskal Irratiak GURE IRRATIAK, IRULEGI IRRATIAK eta XIBERUKO BOTZA IRRATIAK osatzen dute. Hiruak, Iparraldeko hiru lurraldetakoak.

Aitzinera bideratu nahi den proiektua Zuzenezko Kanpo Ekitaldien Garapena da. Haren bidez helburu nagusi bi lortu nahi dira: Irratien hobekuntza gizartearengana ahalik eta gehien hurbiltzea eta euskarazko kalitatezko programazioa eskaintzea.

Ekimen honen bitartez, asteburuetan eta gertakari berezien inguruan, zuzenezko kanpo ekitaldien berri ematea garatu eta sendotuko da.

▮ **GURE IRRATIA (56.000 €)**

Proiektu honen bitartez GURE IRRATIAK lokal berria (lanak eta material teknikoa) estreinatuko du. Egoitza berri hau Uztaritzeko Landagoien industrialdean kokatua dago.

Aurrera pausu honi esker, Lapurdi mailako euskara hutsezko GURE IRRATIAK bere lana egiten segitzen ahalko du, hau da, lapurtarrei irratia zerbitzu orokorra euskaraz eskaintzen.

Zentzu honetan, kontuan behar dugu izan irakaskuntzarekin batera hedabideak direla hizkuntza normalizazioaren ardatz.

▮ **HERRIA ALDIZKARIA (4.000 €)**

Iparraldeko prentsan, euskal munduko erreferentzia izanik, urtetatik euskaraz soilik aritzen den astekaria da.

Orain, HERRIA Astekariak egun duen informatika material zaharkitua berritu beharra dago ezinbestean, Frantziako Internet Postak eskatzen dizkien zabalkuntzarako neurri berriak material berri batekin baizik ez ditzakete obra.

b) UDALBIDE HEZKUNTZA Programa (656.374 €)

Nafarroan:

▮ TUTERAKO ARGIA IKASTOLA (70.000 €)

Nafarroako Erriberan, Tuteran, hain zuzen, guraso elkarte batek 1.984an sortutako ikastola dugu hau. 5 ikasleekin hasi bazen ere, egun 0tik 16 urte bitarteko 234 haur ditu. 100.000 biztanleen artean, euskaraz ikasteko aukera bakarra da ikastola hau.

Ikastolak, bere ikasle kopuruaren handitzea ikusita, eraikin berri bat erosi du. Eraikin honen gabeziak aztertu ondoren, polikiroldegia eraikitzea derrigorrezkoa dela erabaki da. Hortaz, **UDALBIDE Elkarlan Elkarteak** eta Argia Ikastolak abian jarri dute proiektu hau.

▮ BAZTAN IKASTOLA (96.000 €)

1.970 urtean sortutako ikastola dugu hau, 27 ikasleekin bakarrik, hain zuzen ere. Elizondok 3.200 biztanle izanda, egun, eskolak 135 ikasle ditu. Eraikina antzinako serora ikastetxea zen. Baztango udalak erosi zuenetik barne egitura 1.982 urte arte ez zenez berritu, izugarri hondatua dago. Aurrealdearen margotzea eta teilatuaren berrikuntza egiteko premiaz gain, ikastolak ez du soinketarako toki estalirik.

Ikastetxearen lehentasunak aztertu ondoren, UDALBIDE Elkarlan Elkarteak, Baztango Udalak eta eskolako zuzendaritzak elkarrekin, gaur egun erabilpenik gabe eta erabat hondatua dagoen soinketarako gela estalia berritzea erabaki dute.

Aipatutako lokalaren berrikuntza erabilpen askotarako izango da, bereziki soinketa eta psikomotrizitaterako, aldagelak eta biltegia barne.

▮ VIANAKO ERENTZUN IKASTOLA (50.000 €)

Viana eta inguruko herrietako guraso elkarte batek 1.978an sortutako ikastola dugu hau. 12 ikasleekin hasita, egun urte batetik 12 urte bitarteko 98 haur ditu.

Hain ikastola txikia izanik, eta bizi duen egoera ahula dela-eta, etorkizuneko matrikulak ez daude batere bermatuak, ezta langileen lanpostuak ere. Vianako handitze demografikoaren bikoizketa eta

ondoan dagoen Logroñoeko potentziala kontuan harturik, baikor dira. Hala ere, egun dauden bezala, ziklo bakoitzean 9 ikasle gehiago beharko lirateke gutxieneko kopurura heltzeko. Afera honetan UDALBIDE Elkarlan Elkarteak izanen dute laguntzaile.

Matrikulatzea sustatzearen ondorengo ekimen estrategikoak abian jarri dira:

- Ikastetxeko heziketa kalitatea handitu
- Instalazio zabalak eta modernoak eskaini
- Heziketaz gain, kalitatezko zerbitzuak eskaini: haurtzaindegia, jantokia eta garraioa.

▀ **LODOSAKO IBAIALDE IKASTOLA (25.000 €)**

Ibaialde Ikastola 2.002an sortu zen 57 ikasleekin; egun 65 haur ditu. Lehen Hezkuntza bukatu arte egoten ahal dira bertan, alegia, Lodosako ikastolan. D.B.H.ko ikasketak, aldiz, Lizarra ikastolan burutu behar dituzte.

Hau dela eta, Lodosa eta Sartagudatik Lizarrarako ikasle hauen garraioa ahalbidetzea izan da **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** proiektua.

▀ **IKA, MENDIALDEKO EUSKALTEGIA (6.000 €)**

Etiket Plazara izena duen proiektua garatzen du IKAk Bortzirietan, Lesakan, duen euskaltegiak.

Proiektuak bi atal nagusi ditu; alde batetik aldizkaria eta beste aldetik irratsaioak. Bi proiektu hauekin mendialdeko euskaldunak alfabetatzeko hurbilketa eman nahi da eta honen premia konturarazi.

Aldizkari dagokionez, dohainik banatzen da, 8 orrialde ditu eta 8.600 familietara ailegatzen da. Irratsaioak berriz, 60.000 entzule ditu.

Nafarroako Gobernuak 2.005ean burutu dirulaguntzen murrizketa dela eta proiektua dirulaguntzarik gabe gelditu da, eta **UDALBIDE Elkarlan Elkarteak** haren aldeko apustua egin du, egitasmo honek duen defizita estaliz.

▮ **BERAKO LABIAGA IKASTOLA (5.000 €)**

Berako guraso elkarte batek 1.974an sortutako ikastola dugu hau. Egun 2tik 16 urte bitarteko 202 haur ditu.

Bere egoera ekonomikoa oso larria da, D.B.H.ko etapa ez baitago legeztatua ez eta kontzertatua ere.

Proiektu honen helburua hezkuntza egokia eskaintzea da, materiala (mahiak, liburuak, teknologiako materiala eta abar) erosiz.

▮ **MATRIKULAZIO KANPAINA 2.005 (24.374 €)**

Lelo honekin, **ETORKIZUNERA KONEKTA EZAZU**, Euskara Kultur Elkargoarekin batera, **UDALBIDE Elkarlan Elkarreak** D Eredurako (euskara) matrikulazio kanpaina garatu zuen Nafarroan, 2005eko martxoa eta apirila bitarte, euskarri ezberdinetan: *prentsa, irratia eta markesinak*.

Argudioaren ildo nagusiak hauek izan dira:

- Kalitatezko heziketa.
- Gure kultura (gizarteratzea).
- Eleaniztasuna.
- Lan etorkizuna.

▮ **SAN ADRIANGO IKASTETXEA (30.000 €)**

2.000tik aitzin, San Adrianen (Nafarroako Erriberan) 0 urtetik 6 urtera bitarteko euskarazko hezkuntza eskaintzen duen zentroa da GURE ETXEA. Bere ezaugarri nagusien artean, azpimarratzekoa da ingelera, gaztelera nahiz euskara ikasteko murgiltze programa eskaintzen duela.

Proiektu honek bi atal ditu: hiru gela egokitu eta soinketa tokia egin. Besteak beste, Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen arauak betetzeko ezinbestekoak diren moldaketak dira biak; batera, araua bete behar dute baldin eta iaz ikastetxerako eraikin erosteak eragin zuen defizitari aurre egin behar badiote.

▮ **ZANGOZAKO IKASTOLA (33.000 €)**

Zangoza eta eskualdeko beste hainbat herrietako guraso elkarte batek 1.978an sortutako ikastola dugu hau. Egun 0tik 16 urte bitarteko 240 haur ditu.

Proiektu honek 0tik 6 urte bitarteko haurrentzat eraikina egitea du xede. Erakin berri honi esker, ikastetxea handitzearekin batera, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H. bereizteko aukera egonen da.

Iparaldean:

▮ **HEZKUNTEK (12.000 €)**

Iparaldean sortu den elkarte da HEZKUNTEK, xede jakin batekin: teknikari euskaldunak prestatzea. Elkarteak, Iparaldean euskararen erabileraz eta ekonomiaren egoeraz kezkatutako dauden enpresa eta hezkuntza arduradun zenbaitek osatu dute.

"Euskaraz hezi, euskaraz bizitzeko", da aldarrikatzen duten leloa eta honako hau da proposatutako ekimena: Hegoaldeko ikastetxeetara gazteak bideratzea, euskaldun teknikariak formatzeaz gain probintzi ezberdinetako gazteak gurutzatzeak ikuspegi nazionala indartuko duelakoan. Erronka hau gauzatzeko HETAL eta IKASLAN ikastetxe sareak partaide dituzte.

▮ **OHAKO HAURTZAINDEGIA (14.000 €)**

Miarritzeko Ohakoa haurtzaindegia, 1.997an osatua, Iparaldeko euskal haurtzaindegi bakarra izan da pasa den urtera arte. Orain arte 15 haur hartzeko baimena zuen eta bertan, 5 langilek egiten dute lan.

Haurtzaindegia izen bereko guraso elkarteak kudeatzen du. Eraikina Miarritzeko udalak jartzen du eta bere mantenurako CAF (Caisse d'Allocation Familiale) eta DSFak (Pirinio Atlantikoko Departamenduko Gizarte Zerbitzua) laguntza ematen dute.

Azkeneko urteko lanari esker, udalak eraikin handiago bat eraikitzea erabaki du. CAFek eraikitzearen eta altzarien gastuei aurre egiten laguntzen du. Hala eta guztiz ere, nahikoa ez denez, **UDALBIDEK** zatirik garrantzitsuena finantzatzen lagundu du, hau da, sukaldea.

▮ **SEASKA** (250.000 €)

SEASKA, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako ikastola guziak batzen duen federakuntza da. 20 Ama Eskola eta Lehen Mailako ikastetxe ditu, 3 kolegio (Kanbo, Ziburu eta Donaixti) eta Lizeo bat Baionan. Orotara, 2.129 ikasle.

Proiektu honek bi atal ezberdin ditu. Bata, Donaixti eta Ziburuko kolegioko gelak egokitu eta Lartzabalen (Baxe Nafarroa) ikastola berria eraiki. Honen bidez, gaur egun dituzten ikasleei harrera egitearren legezkoak diren baldintzak (segurtasun maila) beteko dituzte. Eta egoitza berri honi esker SEASKAko kolegioetan emendatuz doan ikasle kopurua hartu ahalko da. Helburua haur kopurua bikoiztea litzateke heldu diren 15 urtetan, 2020an Iparraldeko haur eskolatuen %10 ikastolan eskolaratuak izan daitezzen.

▮ **ZIBURUKO LUMA HAURTZAINDEGIA** (40.000 €)

Lapurdiko kosta aldeko guraso eta langileak osaturiko Luma Elkarteak du **UDALBIDEK** laguntzaile proiektu honetan.

Proiektua 3 hilabetetik 4 urterako haurrentzako haurtzaindegi euskaldun bat sortzea izan da. Dagoeneko, 12 haur hartzeko baimena hitzartua da. Egitasmo honek hizkuntzaren transmisioa gauzatzeko borondatea du, etorkizuneko belaunaldien euskalduntzea segurtatuko duelarik.

Haurtzaindegia sustatze lan honetan Baionako CAF, Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorra eta Ziburuko Udaletxea izan dira ere laguntzaile.

Euskal Herria osoan:

▮ **KORRIKA 05** (1.000 €)

UDALBIDEK helduen Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeari, alegia, AEK-k antolatu duen 2.005eko Korrikarako laguntza eman du.

c) UDALBIDE KIROLA Programa (33.000 €)

Euskal Herria osoan:

▮ ESAIT (40.000 €)

ESAIT elkartea, Euskal Herriko Selekzioa nazioartean ofiziala izan dadin sortu zen; batera, sortze bidean diren euskal federazioekin ekimenak antolatu eta federazio, kirolari, eragile eta alderdi politikoekin harremanak ezartzeko xedea dauka.

Hortaz, egitarau oparoa prestatu du, eta horretan **UDALBIDE** izan du lagun: Euskal Herria - Irlanda elkargunea; Euskal Selekzioaren aldeko eguna; Euskal Festa, Euskal Selekzioaren aldeko Bizikleta martxa, eta Euskal Selekzioaren aldeko IV. Mendi Martxa. Orotan parte hartze zabala eman da.

▮ EUSKAL HERRIKO PILOTA KONFEDERAZIA (3.000 €)

EUSKAL HERRIKO PILOTA KONFEDERAZIOAk, lehen aldiz Euskal Herriko Herrien arteko Txapelketa proposatu du 2005ean. Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldeko jokalariak hartu dituen lehenengo txapelketa izan da, eta Iparraldeko ligaren babesa izan du.

Euskal Herriko Pilota Konfederazioa euskal pilotari egitura ofizial bat ematen saiatzen ari da. Aipatu proiektu honekin batera, beste bi proiektu nagusiri heldu dizkio: Euskal Herri osorako Lizentzia Ofiziala lortzea (aurten 1500 baino gehiago atera dira), eta Euskal Komunitateen arteko Nazioarteko Txapelketa bat antolatzea.

▮ EUSKADIKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA (24.000 €)

UDALBIDE Elkarlan Elkarteak eta Euskadiko Pilota Federazioak 2.005eko Euskal Herriko Liga Txapelketa antolatu dute.

Nafarroan:

▮ **EUSKAL FUTBOL CAMPUS (3.000 €)**

Euskaraz burutu eta futboleant oinarritzen diren 8 eta 12 urte bitarteko neska mutikoentzat astebeteko hiru kanpaldi egiteko proposamena luzatu zuen. EUSKAL FUTBOL CAMPUS kanpaldi hauen bitartez gazte hauen artean euskararen erabilpena bultzatu nahi da, bidenabar futbolerako beharrezkoak diren konpetentziak garatuz, hastapeneko futboletik abiatuz eta lehiaketa alde batera utziz.

d) UDALBIDE EKONOMIA ETA LAN MUNDUA Programa (55.500 €)

Iparaldean:

▮ **GAINDEGIA (20.000)**

GAINDEGIA, hots, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategia Elkartea, bere egoitza sozialak zabaldu nahian dabil. Izan ere, Gaindegiaren helburua Euskal Herriko eremu administratibo nagusietan egoitzak izatea baita.

Egoitza horiek elkarteko nahiz bazkideek euren jarduerak gauzatzeko egokiak izan behar dute. Horrek, bulego tresneria, dokumentazioa eta lanerako oinarritzko lanabesez (azpiegitura informatikoa eta intraneta) horniturik egotea eskatzen du.

Aurreikusita dagoenaren arabera, 2005eko azaroa bitarte, Andoain eta Baionako egoitzak prestatu dira. 2006ko helburua, aldiz, Iruñeko egoitza behar bezala hornitu eta zabaltzea da.

▮ **HEMEN ELKARTEA** (5.000 €)

HEMEN Elkartearen zeregina hauxe da: Lanpostuen sortzaile diren Ipar Euskal Herriko enpresak laguntzea, Euskal Herriaren irudi bereziaz baliatuz, eta Iparraldeko datu sozio ekonomikoak eskuratzea.

Proiektuak bi atal ditu. Bata, elkarrizketak antolatu, ekonomialari eta Ipar Euskal Herriko ekonomia, gizarte eta kultur eragileen artean. Bi gai landuko dira: kulturaren garapena eta Euskal Herriko irudia ongi saltzea. Bigarrena, Datu Sozio Ekonomikoen Bilketa eta beren ondorioak argitaratu HEMEN aldizkarian eta bere web gunean.

▮ **LABORANTZA GANBARA** (22.500 €)

Egun, Iparraldean, herritarren erdia nekazaritzari loturiko lanetan aritzen da. EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAREN bitartez, nekazaritza herritarra eta jasangarria garatu nahi da, testuingurua bizirautearren. Ganbaratik nekazariei behar duten informazioa eta formazioa luzatuko zaie. Ildo horretatik, lehenik eta behin Datu Base bat eratu nahi da, "Nekazaritza-ustiategien eraldatzea" izenburupean.

Aurreko urratsekin batera, hirugarren bat dago, garrantzitsua oso, alegia, Iparraldeko kalitatezko produktuen promozioa eta garapena, Hegoaldera begira bereziki. Hau finkatuz gero, nekazaritza eta nekazarien etorkizuna bermatzen da, bidenabar, kalitatea ardatz, euskal nekazal mundua bermatuz.

Nafarroan:

▮ **UHARTEKO UDALA** (3.000 €)

Uharteko Udala, Atarrabia, Berriozar, Oltzako Zendea eta Zizur Nagusiko Udalekin batera, "Euskara Zure Esku" eta "Euskara Merkataritzara" kanpainaz arduratzen da. Hain zuzen ere, azken honen baitan kokatzen da **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** laguntzaz bultzatu nahi den "KANPOKO ERROTULUAK EUSKALDUNTZEKO DIRU LAGUNTZA" proiektua. Bertan aurreikusten da diru poltsa bat irekitzea, kanpainan inplikaturako merkatariei errotuluak euskalduntzeko dirulaguntza ematearren.

Epe ertainean paisaia linguistikoan eragina nabaritutako da eta epe luzera, berriz, euskararen erabilera eragina izan dezan espero dute.

e) UDALBIDE KULTURA Programa (177.300 €)

Nafarroan:

▮ ERRIBERA EGUNA KULTUR ELKARTEA (1.800 €)

ERRIBERA EGUNA Kultur Elkartearen helburu nagusia urtero ERRIBERA EGUNA ospatzea da. Jaialdi honen bidez Nafarroako eskualde honetako baloreak sustatu nahi dira, eta Nafarroa barruan nahiz herrialde honetatik kanpo bertako ezaugarriak zabaldu. 2005ean, Udalbideren laguntzarekin, Kortesen ospatu zen ERRIBERA EGUNA.

▮ EUSKARA KULTUR ELKARGOIA (60.000 €)

UDALBIDE eta EUSKARA KULTUR ELKARGOIAren arteko elkarlana duela urte batzutatik dator. 2005eko proiektuak:

ARTEKARIA zerbitzua: Bi abokatu egiten dute lan zerbitzu honetan eta nafarren hizkuntza eskubideak defendatzea du helburu, bereziki euskararenak, noski, norberakoaren eta taldeen euskara erabiltzeko eskubideak babestuz.

KANTUKETAN erakusketa: Erdi Arotik gaur egun arteko kantuen bilduma entzun dezakegu multimedia erakusketan, irudiak eta kantu bakoitzaren jatorriaren azalpenekin batera.

NAZIOARTEKO HARREMANAK SENDOTZEN

EUSKARA KULTUR ELKARGOIAk eta UDALBIDEk beharrezkotzat jotzen dute Nafarroan euskarak bizi duen egoeraren berri nazioarte mailan gizarteratzea.

- Aniztasunaren Partzuergoaren Foroak.
- Bultzarazi Europako Kontseiluan Nafarroan Erregio Edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Kartaren Ezarpenaren bigarren Txostena.
- Europatik haratago, Nafarroan euskarak bizi duen egoera munduko beste tokietara zabaldu behar da. Honetarako web orrialdearen baliagarritasuna ezinbestekoa da.

SAREA: NAFARROAN EUSKARAK DUEN EGOERA, MUNDUAN ZABALTZEN.

Aurreko proiektuaren ildo beretik, euskarak Nafarroan bizi duen egoera sarearen bidez Europan zabaltzea da proiektu honen xedea. Elkartearen web gunearen bitartez.

Hauek dira lortu nahi diren helburuak:

- Euskararen egoera Nafarroan islatzea.
- Nafarroan euskarari egiten zaizkion erasoen berri ematea.
- Euskal kultur eta hizkuntza gutxiengoan gaiak jorratzen dituzten beste web horiekin harremanak izatea.

HAINBAT ARGITALPEN NAFARROAN

2005. urtean zehar argitalpen hauek burutu dira:

"NAFARROA. HISTORIAREN HARIAK" Bixente Serrano Izkoren lana: Liburu ilustratu bat, euskara hutsean, irakurterraza, kontsulta atseginak egin ahal izateko, ez testu-liburu gisa baina erabilgarria izan daitekeena ikasleentzat (etxean nola ikastetxeetan).

"BERRIOZARKO TOPONIMOAK": Berriozarren euskararen alde buru belarri lanean dabilen ZORROKA TALDEA elkartearekin batera, Berriozarko toponimoak biltzen dituen esku-liburu bat argitaratu da. Liburuaren edukiak Andrés Iñigo eta Mikel Belaskok errebisatu dituzte.

JARDUNALDIAK: 2.004an EUSKARA KULTUR ELKARGOAK egindako jardunaldietan entzundakoaren argitalpena burutu da 2.005ean. Bertan bildu dira txostengileen txostenak, partehartzaileen komunikazioak, egun horretan bertan sortutako eztabaidak eta bukatzeko Elkargoak egindako Nafarroako Hizkuntza Politikari buruz aurkeztutako txostena. Liburua elebidunez argitaratu da.

EUSKARAREN MAPA: Ekimen honek bi ardatz nagusi ditu:

Euskal Herriko mapa bat (Bonaparterenaren itxurakoa) non biltzen/irudikatzen da Bonaparteren Mapak jarritako euskararen mugak. Udalerrietan oinarrituz azaldu euskararen presentzia zazpi herrialdetan. Honekin gaur egun azaltzen diren mugak gainditzea lortu nahi dugu. Hau da, euskararen presentzia biltzea gaurkotasunean.

▮ **IRUJO ETXEA ELKARTEA (9.000 €)**

Elkarte honen helburu nagusia, euskal kultura eta historia berreskuratzeko asmoz eta On Manuel Irujoren pausoei jarraipena emanez, herriko nortasun ezaugarriak jorratzea da, Memoria Historikoan oinarrituz.

2005eko ekimenak:

- 2.005ean ON MANUEL IRUJO Sariaren IV. Edizioa. Goyo Monreal jaunari egokitu zitzaion. Aurreko edizioetan José María Jimeno Jurio, Pedro Miguel Etxenike eta José María Satrustegi saritu izan dira.
- 2.005 IRUJO ETXEA ALDIZKARIAren argitaratzea, historiaren gaiak aztertzen.
- 2.005eko AZARO KULTURALAK antolatzea, historia eta kultura gaiei buruzko hainbat hitzaldi eta mahai inguru eskainiz Lizarran, historialari eta ikertzaile ospetsuen eskutik.

▮ **NABARRALDE (6.000 €)**

Dibulgaziozko proiektu interesgarria dugu honako hau. Honetan, UDALBIDEk NABARRALDE Elkartearekin bat egin du bi faszikuluren argitalpenerako. Gure hizkuntzaren historia, eta bidenabar gure herriaren gako zenbait, ulertzen lagunduko duten triptiko ikusgarriak egin izan dituzte. NABARRALDEren ordezkari Tomás Urzainkik nabarmendu du zeinen garrantzitsua den gisa honetako dibulgaziozko lanak egitea, "gure gizartearen alor ezberdinetara liburuekin baino modu errazago eta arinago batean heltzeko".

Honako hauek dira editatu diren argitalpen biak, gaztelera, euskara zein frantsesez:

- Dibulgaziozko Faszikulua: EUSKAL HERRIKO HISTORIA
- Dibulgaziozko Faszikulua: EUSKARAREN HISTORIA

▮ **OLENTZEROREN LAGUNAK ELKARTEA (6.000 €)**

Olentzeroren Lagunak Elkarteak 2005eko Iruñeko Olentzeroaren desfilea burutu ahal izateko eta Olentzero Iruña izeneko aldizkariaren argitalpenerako laguntza jaso du UDALBIDErengandik.

Elkarte honek urteak ditu Iruñean, traba guztien gainetik, Olentzeroren desfilea antolatzen. Aldizkaria aldiz, pasa den Eguberrietan estreinatu dute. Lehenengo zenbakia izan da 2005eko abendukoa. Osotara 5.000 ale editatu ziren eta doan banatu dira guztiak.

▮ **"BORTZIRIAKO GAZTIAK" LIBURUA, ROSA ARBURUA (5.000 €)**

"Bortziriako Gaztiak" liburua Rosa Arburuak, historia irakasleak idatzi du.

Proiektu honen bidez jaso nahi izan dira oraindik bizi diren pertsonen lekukotasun etnografiko-historikoak, Espainiako gerra zibila ondoren gazte zirenen bizimodu bereziak eta errepika ezinak.

▮ **TUTERAKO NAFARREN ETXEA ELKARTEA (9.000 €)**

TUTERAKO NAFARREN ETXEA Elkartea, kultur dinamizatzailea da bere eskualde osoan. Nagusiki, Nafarroaren historia, soziologia, ekonomia, politika eta kulturaren inguruko ekimen kulturalak antolatzea du xede, betiere Euskal Herria testuingurutzat harturik.

2005eko iraila eta urrirako hitzaldi zikloa antolatu du, "Nafarroa subjektu politiko eta erabaki gune gisa" izenburupean.

Iparaldean:

▮ **EUSKAL KANTU XAPELKETAREN ELKARTEA (9.000 €)**

Iparaldeko hiru lurraldeetarako, bana eduki ordez, EUSKAL KANTU XAPELKETA bakarra antolatzea da ekimen honen helburua. Honela, zazpi herrialde mailako final orokorrean parte hartzeko, hiru lurraldeetatik finalerako hautatuak izan dira lau kantari.

▮ **HAIZE BERRI KULTUR ETXEA (3.000 €)**

Izurako (Behe Nafarroa, Oztibarre kantonamendua) HAIZE BERRI KULTUR ETXEAK, UDALBIDE Elkarlan Elkartearen laguntzaz, Euskarazko ekintzak burutu izan ditu 2005ean zehar.

Garatu diren ekintzak itzulpen lanen normalizazioan, mintzaldi, erakusketa, literatura, kantu, ikus-entzunezko eta antzerki sailtan banatu dira.

▮ **HIRUKI ELKARTEA** (1.000 €)

HIRUKI elkartearen helburu nagusia: euskal kulturaren gizarteratzea da, elkarte osatzen duten Gau Eskola, Baionako bi ikastolak eta Gure Irratiaren ahalbideak eta esperientziak bilduz.

Proiektu honek OLENTZERO BAIONAN antolatzea izan du xede. Olentzeroren irudia zabaltzea biziki garrantzitsua da, izan ere, euskal kulturak urrutiago diren gunetara iristen baita horrela, gure kultura gero eta zabalagoa eta ezagunagoa eginez.

▮ **MAITE DUGULAKO ELKARTEA** (2.000 €)

MAITE DUGULAKO Elkartearen helburu nagusiak hauek dira: Euskara dakitenak eta ikasten ari direnak harremanetan jartzea antzerkigintzaren bitartez, bai eta euskararen erabilpena eta euskarazko antzerki sorkuntza bultzatzea.

Udalbidek laguntza eman dio GUK EUSKARAZ antzerki prestakuntza antolatzeko, lau hilabeteko ikastaroen bidez, euskaldunei eta euskara ikasten ari direnei eskaintzeko.

▮ **SEASKA** (3.000 €)

"Euskarabiada - Glisseguna", aisialdian gazteek euskara erabiltzeko antolatua dago SEASKAK UDALBIDE Elkarlan Elkartearen laguntzaz burututako proiektu hau.

▮ **SUSTRAIAK KULTUR ELKARTEA** (1.800 €)

Iaz bezala, UDALBIDEK *ELKARTASUNA - ETORKIZUNA* jaialdia sustatu du. Pasa den urtean Tuteran burutu zen; 2005ean Basaurin.

Proiektu hau SUSTRAIAK Kultur Elkartearen eskutik dator. Bere helburu nagusia hau da: euskara eta euskal kultura sustatu eta bultzatzea. Jaialdiak, Euskal Herri osoko talde eta elkarte kulturalak, dantza taldeak, musikariak eta abar elkartzen ditu, Euskal Herriko aniztasuna eta elkartasunaren adierazle gisa.

▮ **ZIRRIMARRA ELKARTEA (700 €)**

ZIRRIMARRA Elkarateak, arte plastikoak ezagutarazten ditu euskaraz eta frantsesez. Eskulanean bitartez haurren eta gaztetxoengan kreaioaren gogo sortzea du helburu.

▮ **ZINKA BIZIRIK ELKARTEA (6.000 €)**

Iparraldeko txoko honetan, euskal kultura indartzeko xedez, euskaldunen arteko bilgune bat sortzea.

Euskal Herri osoan:

▮ **JOSE M^a JIMENO JURÍOREN BILDUMA (60.000)**

UDALBIDE Elkarlan Elkarateak, Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak, José M^a Jimeno Jurio, Artaxoako historialariaren *LAN GUZTIAK bilduma* argitaratuko dute.

Bi hilabetero argitaratuko dira, 62 liburuki osatu arte. Lana Roldan Jimeno Arangurenek zuzendu du, David Mariezkurrenarekin batera eta Patxi Salaberriren laguntzaz.

Bilduma liburu dendetan erosi ahal izateaz gain, harpidetzaren bitartez eskuratu daiteke.

UDALBIDE HURBILTZEN Programa (2.430 €)

HURBILTZEN egitasmo honen helburu nagusia: Euskal Herriko udalen arteko senidetze akordioak bultzatu, euskal hiritarren arteko harremanak indartu ahal izateko. Udalen arteko senidetze akordioak duela zenbait hamarkadatik hona garatu den praktika ezagun bat dugu. Udal askok, dagoeneko esperientzia luze eta aberasgarria dute arlo honetan.

UDALBIDEK, haratago doa, beste pauso bat emanez: Hirunakako senidetzeak bultzatzen saiatzen ari gara: Iparraldeko bat, Nafarroako bat, eta Euskal Autonomi Erkidegoko beste bat. Akordioak udalek bultzatzen dituzte. Halaber, horiek izanen dira bitartekari lana eginen dutenak.

Nolanahi ere, hiritarrak dira protagonista nagusiak, euren elkarte eta kultur edo kirol taldeen bitartez.

Gehien errepikatzen diren elkar-lan gaiak hauek dira: euskara, hezkuntza, gazteria, hirugarren adina, udal kudeaketa, kirola, turismoa, aisia, gastronomia, artisautza, musika, dantza, margolanak eta eskulangintza. Gai anitz daude eta bata edo bestea hautatu, parte hartzen duten udalerrien interes eta borondatearen baitan egonen da.

HURBILTZEN egitasmoaren bitartez finantziario laguntzaz gain, aholkularitza profesionala eskaintzen zaie udal guztiei, senidetze programa hau garatzeko, bai metodologiari, bai informazioari, bai esperientzia desberdinen bateratze lanari dagokionez. Halaber, beste diru iturriak lortzeko ere, laguntza eskaintzen da.

2.005ean gauzatu diren bi proiektuak hauek izan dira:

- **Getxo – Goierri – Angelu (1.500 €)**

- **Ataun – Sara (930 €)**

2005. URTEAN EMANDAKO LAGUNTZAK: 1.349.269 euro

IPARRALDE	466.700 €
Hezkuntza	
✓ HEZKUNTEK	12.000
✓ OHAkoa Hurtzaindegia	14.000
✓ SEASKA	250.000
✓ ZIBURUKO Hurtzaindegia	40.000
Komunikabideak	
✓ HERRIA Astekaria	4.000
✓ GURE IRRATIA	56.000
✓ EUSKAL Irratiak	16.000
Kultura	
✓ Euskal Kantu Xapelketa Elk.	9.000
✓ HAIZE BERRI Kultur Etxea	3.000
✓ HIRUKI Elk.	1.000
✓ MAITE DUGULAKO Elk.	2.000
✓ SEASKA	3.000
✓ ZINKA BIZIRIK	6.000
✓ ZIRRIMARRA Elkartea	700
Ekonomia	
✓ HEMEN Elkarte	5.000
✓ LABORANTZA GANBARA	45.000

EUSKAL HERRI Osoa	89.800 €
Hezkuntza	
✓ KORRIKA	1.000
Ekonomia	
✓ GAINDEGIA	20.000
Kirola	
✓ Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza	24.000
✓ Euskal Herriko Pilota Konfederazioa	3.000
✓ ESAIT	40.000
Kultura	
✓ SUSTRAIAK	1.800
✓ JOSE MARIA JIMENO JURIO-ren OBRAS COMPLETAS bilduma	60.000

HURBILTZEN	2.430 €
-------------------	----------------

NAFARROA	790.339 €
Hezkuntza	
✓ San Adriango Ikastetxea	30.000
✓ Vianako Ikastola	50.000
✓ Lodosako Ikastola	25.000
✓ Tuterako Ikastola	70.000
✓ Zangotzako Ikastola	33.000
✓ Berako Ikastola	5.000
✓ Baztango Ikastola	96.000
✓ IKA	6.000
✓ Matrikulazio Kanpaina 2005	24.374
Komunikabideak	
✓ EUSKALERRIA Irratia	30.000
✓ EKIALDE Aldizkaria	6.000
✓ EITB Nafarroan	214.165
✓ NABARRA Aldizkaria	4.000
✓ TOPAGUNEA	30.000
✓ XORROXIN Irratia	4.000
Kultura	
✓ Euskara Kultur Elkargoa (EKE)	60.000
✓ IRUJO ETXEA Elkarte	9.000
✓ ERRIBERA EGUNA	1.800
✓ OLENTZEROREN Lagunak Elk.	6.000

✓ NABARRALDE	6.000
✓ BORTZIRITAKO GAZTIAK Liburua	5.000
✓ Tuterako NAFARREN ETXEA	9.000
Ekonomia	
✓ UHARTEKO Udala	3.000
Kirola	
✓ Euskal Futbol Campus	3.000